



MANUEL LEKUONA Saria Prix MANUEL LEKUONA



EUSKO
IKASKUNTZA



**Piarres
Charritton**



17

Datu biografikoak	5
Données biographiques	21
Une gogoangarriak	37
Moments mémorables	37
Bibliografia	55

Ehulateiko Pierra eta Gaxuxaren seme zaharrena

1 921eko urriaren 19 an sortu nintzen Lapurdiko Hazparne Ehulateian. Aita *Pierra Charritton* gure auzoko Eihartzera jina zen lehenik, 1914eko gerla aitzin, Oragarre Jelos-Bordatik, osaba Beñat baratzezainari buruz eta, gero, hortik, gerla egin ondoan, 1919ko ekainaren 21 ean ezkondu zen gure etxera, *Gaxuxa Zabaltzagarai*-ekin.

Burasoek “Pierre” edo *Pierres*, aitaren izena, eman zidaten herriko-etxean eta elizan.

Ene ondotik sortu ziren Ehulateian bi alaba: *Kattina*, gaur Bezkoitzeko Henri Elhuyar zenarekin familiatua izanik, Olhatzean bizi dena; eta *Aña*, Jean Léon Guichandut zenarekin familiaturik, 1973an Parisen hil zena.

Eta beste hiru seme: *Xalbat*, gaur Isturitzeko Mayi Garatekin familiaturik, Mendilahatsuan bizi dena; *Janbattit*, Hazparne Zelaiko Maialen Ihintzekin familiaturik, 1997an hil zena; *Mattin*, gazteena, Aña Hondarrague, Bezkoitze Mueskako alabarekin familiaturik, gure sortetxean bizi dena.

“Ehulateia”, izenak dioen bezala, ehule etxea zen, XIX. mende erditsu arte, baina orduan etxeko bi seme gehienak, Joanes eta Martin, hogeitaz bete gabe, 1857an eta 1863an, Buenos Airesetara joan ziren, ehungintza utzirik, hemen gaingotik ehule guziek bezala.

Etxen gelditu zen, bakarrik, gure aitatxi Batista Zabaltzagarai, Dominika Diharce Eztiteiko alabarekin ezkonduarik, Ehulateiko eremu xuhurrean laborantzatik eta itzaingotik beren bederatzi seme alabak hazi zituen, bere omere on, omen, sekula galdu gabe.

Illo beretik joan da gure aita, ele alfer gutiz eta bera hil ondoan auzo batek zioen bezala, «pikoa bali» eginez, etxera ekartzen ziola amari sei haurren, ohorezki, baina fantesiarik gabe, altxatzeko behar zuena.

Haurride guziek erran dezakegu gure aitamek, eta etxen genituen amaren ahizpek, segurtatu digutela haurrak behar duen segurantzaz eta bakea.

Zinez uste dut, 1930eko inguruetan 10, 30, 40 edo 80 urteko bizpalau iloba, ahizpa, anaia, osaba, aitaso edo amaso batzuen galtzeak ilundu eta lastu bazituen ere gogorki gure etxeko guztien bihotzak, ez dugula bestela etxeko gozoaren eskasik egundaino pairatu. Aldiz arto xuritze, xerri hiltze edo ogi joi-tetako oroitza pen atseginez bestalde, ezin ahanztzikoak dauzkat, negu mine-an, kanpoan haize hotzaren orroa ozen delarik, supazterraren inguruan egi-ten genituen, kantuak, irakurketak edo “Agur Mariak”.

Etxeko lanetan, aita soro burura igortzen nituelarik behizain eta ene aterkiaren azpian ahanzten zitzaizkizkiz, abere biziak arto landatik begira-tzea, eskuko irakurgai baten gatik, oihu samin bat edo beste entzun behar nuen, ontsa merezitua, baina besterik ez.

Eskolan ere edo katiximan ez nuen arazo berezirik. Elizan igandetan beretter nintzen.

Iñazio Lazkanotegi gure eskolako Urruñar apezari nion lehenik aitortu nahi nuela nik ere, ene adineko beste zazpi herritarrek bezala, apezteko eskolatan sartu. Gero etxen, ama Gaxuxari nuen salatu, berak aitari helaraz ziezaion mezua.

Ez ziren hainbat harritu gure aitamak ene berria jakitearekin: ez aita Pierra, nahiz seme gehiena nintzen, haren laguntzaile azkar bat egin neza-keena, ordurarte izan nuen baino kar gehiago erakutsi banu bederen, lur-gintzarako.

Bazituen berak bestalde bi lehenkusi, jadanik apeztuak: Bat bere gerlako lagun hoberena, Paul Durquet apez, gerlan kapitain gradora iganik, Baionako seminarioan irakasle zena eta bestea gure auzoan, Pierre Charritton apez, Mauleko kolegioan buruzagi eta gero Baionako Katedralean erretoa izan beharra zena.

Ez zen harritu ere gure ama Gaxuxa: bazuen alabaina ahizpa zaharrena, Maria, frantzizkotar serora, lehenik Donapaulen eta gero Izpuran buruzagi izan zena.

Beste ahizpa bat, aldiz, gure ttantta Maiena, berrogei bat urtez, apez gelari egona zen Baionan, Mgr Diharce osaba bikario jeneralarekin, hau bera zendu arte. Izeba Maienak zuen gure etxondora ekarri Baionatik osa-baren liburutegi aberatsa, ordukotzat liburuzaletasunaren gaitzaz kutsatu ninduen.

Amaren etxeko ahizpa aldiz, berari hurbilena, ttantta Xarlota zen, gure bigarren ama, emazte lanekoa bezain otitzekoa eta ohitura saindu guz-tien begirale xorrotza. Izeba Xarlotak ere bere baimena eman zuen, eta



geroago, handitu eta apeztu nintzelarik, behin bainotan, haren ganik entzun izan dut, zer den edo ez den gisa apez batek egitea; hala nola, tenorez edo destenorez ibiltzea.

Horra beraz nola, lehen aldikotz, eta ez azken aldikotz, sartu naizen, 12 urtetan, kasik besoaren helmenean nuen Hazparneko kolegioko barnetegian, lehenik latina, grekoa, espainola eta beste anitz gauza ikastekotan eta gero apezteko asmotan.

Eskoletan

Jadanik haurrean bospasei urte eginak nituen parropiako eskolatik burdin sare bat iragaitea aski nuen kolegiara sartzeko, baina ez zen uste bezain erraza izan niretzat Lazkanotegi bikarioaren menetik, Gastelu zuzendariaren menera iragaitea.

Kolegioko barnetegira sartu nintzelarik, 1933an, erran behar dut zinez ikastegi berezia zela Hazparneko kolegioa: Hazparneko Garat eta Deyheralde aita misionestek 1840eko hamarkadan sortua zuten San Josep ikastegia eta Jean Baptiste de La Salle sailduaren Anai irakasleen esku emana. Hor eginak ziren buruzagi bi euskal idazle aski ezagunak, Innocentius Elissamburu anaia (+1895) lehenik eta Juvéna! Agirre anaia (+1932) gero, 1911an Frantziak kongregazioak kanporatu arte. Larderia handiko gizonak izanak omen ziren biak. Espainia guzitik biltzen ziren orduan ikasle gazte aberatsak Hazparnera, frantses hizkuntza ikasi beharrez. Ikasle horietarik 100 bat bazirela oraino 1900 ikasturtean egiaztatu dut. 1914eko gerlaz geroztik ordea iturri hori agortua zen eta 1930eko hamarkadan San Josep ikastegia husteru eta hondatzera zean. Apezpikutegiak Jean Gastelu aita misionestaren esku ezarri zuen beraz, 1933an, berak ahal bezala etxea berpitz zezan.

Zuzendari berriak eskola hartu zuen 7 irakasleekin eta 29 ikasleekin, horietarik 6, gu, Hazparneko bereko apezgaiak ginelarik. Jakin zuen Gastelu apezak Iparralde guzitik jendea biltzen, ezen ondoko urtean berean 30etik 90era igana zen ikasleen kopurua eta, handik 25 urteen buruan, ene esku utzi zuelarik etxea, 300 ikasle hurbil bazeuzkan.

Bizkitartean aitortu behar dut, menturaz aitzinean gaizki eskolatua nintzelakotz edo ene jitez biziki hezgaizta, barnetegiko araudia eta eskola berriko larderia ez nituela errazki onetsi? Beharrik atharraztar apez zahar bat izan nuen gerizatzaile: gure latin irakaslea, Ossiniry jaun kalonjea, eta hari esker jasan nuen bi urte luze iraun zuen gure bizimolde hura. Beste irakasle anitzek oroitzapen gazi-gezak utzi dizkidade.

Dena dela, Hazparneko lehen bi urteen ondotik, atsegin hartu nuen, 1935eko udazkenean, 14 urteak betetzera nindoalarik, Uztaritzeko seminarioa heldu nintzenean. Iduritzen zait asko zor diedala han aurkitu nituen irakasle. Eskertu behar nituzke bereziki, etxeko buruzagia, Joseph Garat, Hazparne Lordako apeza eta Piarres Lafitte ene gidari eta orobat eskolatzaile nagusia.

Piarres Lafitte gogoratzearekin ordea erran behar dut, mugaz bestaldetik gerla gorriaren oihartzunak Uztaritzerraino heltzen ziren urte haietan, Jacques Maritain, François Mauriac, Georges Bernanos, Emmanuel Mounier edo Iñaki Azpiazuren artikulu, liburu ala ideiak Lafitten ahotik hartzen genituenok ez ginela beti denetan ongi ikusiak?

Baziren, ardi galduen berriak behar zen lekura, Hazparneko apezetxeraino gure etxekoen asaldatzeko doa, helarazten zituzten arima onak: 16 urte nituen eta, apezgai jantzia hartu berria, jakinarazi zietelarik gure aitamei, baztertuko nindutela menturaz seminariotik, hartzen ari nintzen bide makurraren gatik.

Ez dut uste uko egin niola geroztik ene “bide makurrari”, hots, Lafittek Uztaritzen erakutsi bideari; alderantziz baizik. Ez ninduten halere buruzagiek baztertu. Ikasi nuen bada orduan, nire gostuz, zein errazki sorginak eta sorginkeriak ikusten dituzten kristau batzuek, bazter guztietan.

1940eko ekainean bururatu nituen Uztaritzen bigarren mailako ikasketak: gure inguruan hainbeste goraiatuak izanak ziren Franco eta Molaren adiskide handien, Hitler eta Mussoliniren gizonak, Frantziaren armada garaitezina, bizpalau aste barne, porroskatu eta suntsitu zutenean. Guk, Hegoaldeko gure haurride euskaldunak gutartera ihesi etortzen ikusi berri genituen, eta orain frantses ihesliarrak eta frantses soldado edo aitzindariak Iparraldetik zein lehenka heldu ziren: etsiturik, gure etxe ondoko bide bazterrera aurtikitzen zituztela beren armak.

1940tik 1944ra, Alemanak gutartean egon ziren denboretan aski ixil eta umil gelditu naizela erranen dut, Hazparneko xokotik hainbat urrundu gabe, gure lagun zenbait bazoazelarik, edo Alemaniara langile, edo Afrikara soldado.

Ez nuen ez alemanen alde lan egiteko gogorik; ez nuen ere, haien aurka armen hartzeko kemenik, nahiz, halaberharrean, ingeles aitzindari gazte bat, Russell Kirby deitua, bestaldera iragan beharrez gure etxera nonbaitik jina, etxen gorderik atxiki nuen, 1943ko abuztu luze batez.

Apezpikuteigiko gure buruzagiei nengoen prestuki: lehenik Baionako seminarioan filosofia zer den ikasten nuela, Pierre Narbaitzen irakaspen argiak entzunez. Tartetik, Oihenarten “Notitia utriusque Vasconiae”, Jaurgainen “La Vasconie” edo Campionen “Euskariana” azterkatzen nituen hale-re, *Aintzina* aldizkarian egundainotik maite izan nuen euskal herriko historia-ren zenbait kapitulu, Xabier Gasteiz edo beste izenorde baten itzalpetik aurkezteko gisan.

Bi urteren buruan, bidali ninduten, Biarritzera lehenik (1942) eta Hazparnera gero (1943), irakasletzan lehen urratsak egitera. Ez dut segur

Biarritzeko eta Hazparneko egonaldi haien oroitzapen txarrik atxiki. Biarritzen ezagutu nuen bereziki Iparraldeko abertzaletasunaren historian leku ederra hartze duen Janpiarre Urrikarriet, aldudar apez argia, geroztik, Mugerreko erretor, gazterik zendua.

Alemanak urrundu zirelarik, 1944eko udaldian, Baionako seminariora itzuli ginen apezgai lagunak, teologiaren hatsapenak aztertzen hasteko eta gero, gerla bururatzearekin, Alemaniatic edo gerlatik itzuli irakasle eta ikasle berriekin beste urte baten hor berean egiteko.

1946an aldiz, lehen aldikotz, ene xokotik ateratzeko parada eta bi urtez Erroman Gregorianum-eko irakasle jesuitak entzuteko eta ezagutzeko zortea izan nuen.

Jesuita horietarik frango euskaldunak ziren eta aski ezagunak, hala nola, aita Gorostarzu laguntzaile jenerala, aita Leturia historialaria, aita Zapelena, aita Galdos edo orain Loiolara bildu den aita Goenaga.

Igandetean, maiz, Baionako euskaldunak, Roger Etchegaray eta ni, Donostiako Angel Suquia eta Pedro Alkorta gure bi lagunekin kurutzatzen ginen, Gregorianum-eko gure irakasle euskaldunak hartzen zituzten Tolosako Olarra-Larramendi-tarren etxean.

Artetik, bada, 1947ko uztaillean, etxeko itzulia egin genuen ordenako sakramenduaren hartzeko, Roger Etchegarayek, Ezpeletako elizan, Jean Saint-Pierre apezpikuarenganik, eta nik, Henri Zarzabal, eta Jean Challet ene lagunekin, Hazparneko elizan, Clément Mathieu apezpiku herritarraren eskutik.

Erromako egonaldi horretan, teologiako lizentzia eskuratu nuen baina ez dut uste horrek egiazko teologo bat egin duen nitarik. Bizpahiru urte eskola ez dira aski hortako. Doi doia teologiako kapitulu larrienen errepikatzen ikasia duten irakasle horietarik bat izanen nintzen, beharbada, Erromatik landa, eskatu balidate teologia irakasle izaitea. Ez zen horrelakorik gertatu.

Iduritzen zait halere, Erromako egonaldi horretan aski hurbiletik ikusi dudala nolakoa zen, Pio XII.en egunetan, gure elizaren egitura eta iharduera. Gaurko elizaren buruetarik zenbait ere orduan ditut ezagutu. Ez zait beraz behinere dolutu aspaldiko egonaldi hura.

Gazteen artean, gazteen zerbitzari

Sorterrira itzultzean, 1948an, bost bat urte, urte lasaiak, iragan ditut, irakaskuntza munduan, behin Hazparneko ikastetxera bidali nautelatik, hirugarren aldikotz, eta bi urtez, han atxiki irakasle eta/edo haurzain bezala, gero berriz, Mauleko ikastetxean, hiru urtez, filosofia eta gaztelania irakasten erauntsi naizelarik.

Eta hona non, 1953eko udazkenean, ustegabetarik, apezpikutegitik izaten dudana nihaur Parisera filosofia ikastera joaiteko deia: Izanen dut beraz horrela, Erroman ikasi, Maulen irakatsi eta Parisen entzunen ditudan egia eta aburu batzuen ausnartzeko astia. Ene filosofiako lizentzia berria baliatuko dut gero, Parisetik landa, Baionan sortu beharra den Lavigerie Ikasgian Filosofiaren historia irakatsiko dudalarik.

Bizkitartean, ikasketez eta liburuez besterik banuen erabilirik ene Mauleko eta Pariseko urteetan: Euskal Herriko gazte askorekin kurutzatu nintzen eta haien eskakizunei oharitu. Horrengatik zuen Terrier Baionako apezpikuak onartu Pariseko euskaldun gazte lagun batzuekin egin genion eskea: Felten kardinaleak ere, euskaldunen adiskide handiak, onespena eman zigun kapera ala parropia berezi bat antolatzeko Pariseko euskaldunentzat.

Jarraian, *Elgar* Pariseko euskaldunen egunkariak ezohiko zenbaki bat atera zuen, lau hizkuntzetan, euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez, eta hura zabaldu bazter guztietan, etxe baten erosteko doia laguntza bilgezezan.

Parisen bildu diruaz bestalde, Euskal Herritik ere jin zen laguntza ederra. Eta horrela, Pariseko Duban karrikaren 10.ean, "Garaikoetxea", Ibarreko sainduaren izena - laster ahantzi zena - eman zion Pariseko Eskualdun Gazteriak, 1954ean, Euskal-Etxe sortu berriari. Baitu geroztik zenbait zenbait euskaldun aterbeturik!

Parisetik lekora, hango euskaldun gazteria utzirik, Baionan hartu behar izan nuen, irakaskuntzaz bestalde, Iparraldeko euskaldun gazteria osoaren aholkularitza.

Lan berri horretan iragan bost urteak (1955-1960) ez direla beti izan eguzki, aise ulertuko da, Aljeriako gerla urteak zirela gogoratuz geroz.

Orduko *Gazte* aldizkariaren zenbait artikulua irakurtzea aski da, ikusteko nola “gaztek gaztentzat egin nahi zuten” kazeta hori saiatu zen, gerla lekue-tan zebiltzan euskaldun gazteen lekukotasunak biltzen eta argitaratzen.

Beste gai bat ere baderabila nasaiki aldizkari berak: hau da, gazteen herrian bizi nahia eta biharko herriaren zortea. Harrotzen baitziren horrela, ez bakarrik gerlarien orduko kontzientzia problema larriak, baina bai ere Kultura, Politika eta Ekonomia arazoak. Ikus bedite adibidez, Kabylia-ko gerla bestalde aipu diren Kristau nortasuna, Herriko botzak, «Ch»-en ordez «X» letraren onartzea eta euskal ortografia bateratua edo, Hegoaldean, Suizako Valais eskualdean gaztek egin ibilaldiak eta Donibane Ziburuko arrantzaleen bizia.

Gazteriaren arrangura horiek nolazpait heldu zirela apezpikategiko bule-goetara, iduritzen zait, zeren eta, 1960eko martxoaren 19an, Paul Gouyon apezpikuak deitu baininduen bere aitzinera, niri erraiteko Hazparneko ikas-tetxea ezartzen zuela ene gain, hor antola nezan langintza eskola berri bat euskaldun gazteriaren zerbitzuko. Ondorioz, Jean Hiriart-Urruty adiskideari utzi behar nion berehala Euskaldun Gazteriaren aholkularitza.

Ez nezakeen erran ez zegokiola Baionako elizari horrelako eskola baten eraikitzea; nihonek aski gora eta aski usu adierazia bainuen bazterretan, 12 eskolatan latina eta grekoa irakastea bezain beharrezkoa zela, estadoak egi-ten ez zuena elizak egitea, hots, euskaldun gazteriari eskaintzea, menturaz laster utzi beharko zuen ofizioaren ordez, beste ofizio bat ikasteko aukera.

Ez zitzaidan ordea batere iduritzen nihaur nintzela lan hortarako langile egokia. Orduan iragan ditut, nik uste, 1960tik 1965ra, sorterrian berean, ene biziko urterik gogorrenak.

Hainbeste batailaren artetik, laguntzaile on batzuei esker, ikastegi berria altxatu genuen halere eta gero bost bat urteen buruan, Frantziako eta Espainiako polizek lasterkatzen zituztelarik Txillardegi eta Kristiana Etxalus bezalako gure irakasle lagun zenbait, nihaur Parisera, “Notre Dame des Champs”-eko ikastegira, joan behar izan nintzen, bi urterentzat, hatsa har-tzera eta, ezagutza berrien egitera.

Herriarrekin herrigintzan

Aitortu behar dut aitzineko gure euskal mundutxo gehienak ongi etorria egin zigula nork edo nork debekatu nahiko zigun gure sor-terrian.

Ene lagunak berehala lanbide bat aurkitu zuen, gaurko egunean oraino badaramana. Nihaur Iparraldeko eta Hegoaldeko adiskide batzuen laguntzari esker, batetik Euskaltzaindiko lanetan sartu nintzen, bereziki aita Lafitteri esker eta, bestetik Joseba Intxaustik abiatzera zoan UZEI-ren lantaldean onartu ninduten.

Aski laster oraino, Julen Ajuriagerra mediku irakasle ospetsuaren itzalean, eta Ipar-Hego bi aldetako lagun batzuek bildurik, Euskal Ikasketen Erakunde berria sortu ahal izan genuen, geroztik, Bordeleko eta Pabeko Unibertsitateen arteko euskal adarra bilakatu dena Baionan.

Damurik ez zaiola oraino Baionako ikastegiari gogoratu Donostiako edo Iruñeko Unibertsitateekin partzuergo finko baten gorpuztea, ikasle eta irakasle trukada bat segurtatzeko gisan!

Unibertsitate ikerkuntza sailean aldiz, nihaur beste lan baten prestatzen hasi nintzen, Jean Haritschelhar, irakasle adiskidearen zuzendaritzapean eta, 1983an, Bordeleko Unibertsitatean aurkeztu nuen Pierre Broussain Hazparneko lehen euskaltzainaren bizia eta obra aztertzeako tesia.

Berehala C.N.R.S.eko argitaletxeak eskaini zidan ene lana argitaratzea eta, bere herrian ahanztia bezala zegoen Piarres Broussain, Hazparneko auzapez eta Kontseilari orokor zena, Eusko Ikaskuntzaren eta Euskaltzaindiaren Buru-orde izana, berpiztu zitzaigun. Zer lanak erabili zituen Euskararen eta Herriaren alde, bere sasoiari, abertzale handi horrek agertu ahal izan zen horrela. Hobeki ikus zitekeen ere zenbat oraino gelditzen zitzaigun herrigintzan egiteko.

Zerbait zerbait badela halere eginik, gostarik gosta, azken 80 urteetan, bai Hegoaldean bai Iparraldean, erran behar dugu, guhaur lekuko eta batzuetan partialier izan garelako.



Euskal literaturako sailera itzuliz ordea, Piarres Broussain, Resurrección Maria Azkue, Sabino Arana, Manex Hiriart-Urruty edo Georges Lacomben gutunak aurkitu eta agertu edo Jean Etchepare, Piarres Larzabal, Jean Saint Pierre-Anxuberro, Jose Mendiague, Adema Zalduby, Arnaud Abbadie, Andre Hiriart-Urruty eta Pierre Narbaitzen idazlanak bildu eta argitaratu ahal izan baditugu, euskarak orain arte aski arrotz zuen mundu batean sartzeko atsegina ere izan dugu, lehenik UZEI-n, ondotik Zorroagako Filosofia fakultatean, Platon edo Aristoteles euskaraz komentatzearekin edo geroztik itzultzaile gisa, Tomas Morusen “Utopia”, Frantses Vitoria-koaren “De Indis” eta Baruk Spinozaren “Ethica”, latinetik euskarala itzuli ditugarik.

Ez ditut orain aipatuko fedegintza edo herrigintza alor batzuetan, ahoz edo idatziz, artetan izan ditugun eztabaida agerikoak ala ixilekoak. Mindu dituzkedan adiskideek barkatuko ahal didate !Ez nagoke bestalde eskerrik eman gabe ene bizi guzian jasan eta maiz lagundu nauten etxeko eta aldeko lagun guziei. Eskerrak bereziki emaiten dizkiet 1986eko ekainaren 28an Hazparneko herriko etxean erran nien bezala, Pierre Lafitten alkia hartzeko ohorea eskaini didaten euskaltzainei. Joanak direnei eta gure ondotik heldu direnei, erraiten diet orori, bihotz bihotzetik milesker. Jainko onaren ararteko dira niretzat, Hura bera ezagutzera joan aitzin.

Azken hilabete hauetan bada etorri zaizkit Jakin-eko eta Labayru-ko adiskideen ospakizun goxoak. Hona orai Eusko Ikaskuntza-ren ganik heldu Lekuona saria. Gaztetzen ari ez naizelako marka, nik uste, baina orobatsu, Jean Etcheparek Piarres Broussaintzat idatzi zuen bezala, higatzen ari naizen bizi honetan ibili urrats guztiak alferrik izan ez direlako seinale. Eskerrak beraz zuei deneri!

Artzainbideak

Pariseko ene bigarren egonalditik landa, Mgr Vincent Baionako apezpikuak Saint-Amand-eko erretoiregoa eskaini zidan eta kargu hori onartuz geroz, sei urtez atxiki dut, 1967tik 1973ra; arte horretan, bai elizaren barnean bai mundu zabalean bai euskal herrietan, gertakari frango gertatzen zirelarik.

Honaraino inharrosi gaituzten gatazka batzu bakarrik aipatzeko, gogoan har ditzagun, adibidez, 68ko Maiatza Parisen iragana, edo Baionako Seminario Handiko “garbiketa”; Burgoseko auzia edo Baionako katedraleko lehen gose greba; “Humanae Vitae” Paulo VI.aren gutun arantzatsua edo Europako apezen eta apezpikuen arteko eztabaida, buruz-buru gertatu zirelarik han, Suizan, gutarteko bi elizagizon aski ezagunak, Roger Etchegaray Ezpeletarra, Europako apezpikuen izenean eta Andoni Lekuona Oihartzuara, Europako apezen ordezkaria.

Ber denboran, Hegoaldeko ihesliarren kopurua bazoan beti gora eta ahalaz eskaini behar genien aterpe, nahiz ordukotzat estatuen interesak artetik sartzen ziren. Iparraldeko apez zenbaitek egiten genituen halere bilkurak hango apezlagun batzuekin Hegoaldean: Loiolan, Aralarren, Urretxun, liturgia berria atondu beharrez edo politika aro berriak bazetozelako arranguraz.

Iparraldean berean bestalde, apezpikutegiak zeraman euskal politika ikusirik, apez eta kristau batzuek, Jean Hiriart-Urruty, Manex Erdozaintzi, René Ospital, Claude Harlouxet, Maurice Borteyrou, Michel Larroulet jada zenduak eta oraino gutartean diren beste zenbait zirela tarteko, saiatu ginen «Fededunak» taldearen abiarazten: Fedea eta Kultura elkartzeko eta kristau fedea euskal kulturari txertatzeko xedea zuten Fededunek. Iduritzen zitzaigun alabaina, beti sakonago zoala euskaldungoaren eta elizaren arteko leizea, eta nahiko genuen, Maritain-ek erakutsia gogoratuz, “batasuna zaintzeko, bereizketa finkatu”.

Dena den, zerbait horrelako bagenuen ere gogoan 1970eko eta 1971ko udaldietan, antolatu genituelarik, Jean Haritschelhar Euskal Erakustegiko zuzendariarekin eta Manex Goyhenetche Ikas-eko idazkari-gaiarekin, Baionako Euskal Asteak.

Ondotik, Karlos Santamaria bezalako jaun bat edo bestek hotsemanik, Udako Euskal Unibertsitatearen lehen ihardunaldiak aurkeztu zituzten Ikas eta Fededunak bi taldeek Donibane Lohizuneko Ravel Lizeoan, 1972ean eta 1973ean

Beste amets bat banerabilen ordea buru muinen gibeletik, aspaldiskoan: Erroman egon nintzen gaztaroko urteetan teologia munduaren itzuli osoa egi-teko astirik ez baldin banuen ere izan -aitortu dudak bezala- teologiaren xoko berezi bat, hots, teologia politikoa, teologo gutik hunkitzen duena, apur bat harrotzeko zortea izan nuen, halaere, aita Bertrams gure Gregorianum-eko irakasle jesuita alemanari esker.

Eta geroztik ez nuen behinere haria galdu. Pariseko bi egonaldietan egin ikasketek eta nihonek herrian bizi izan gatazkek borobildu baizik ez zuten ene harilkoa.

Azkenean, 1970ean, René Coste, Louvaineko eta Tolosako irakaslearekin ezagutzak egin nituen, eta jaun honi esker, 1973ko abenduaren 7an, Tolosako Teologia Fakultatean aurkeztu nuen ene lehen doktor tesia, "Le Fondement moral des droits culturels" edo "Kultura eskubideen oinarri etikoa" deitua.

Ordukotzat bada, ene teologia agiria sakelari, berriz Pariser joana nintzen familiako larrialdi batek beharturik. Ustegabeen alabaina, ene arreba Aña, ama familiakoa, galdu genuen zenbait aste barne. Joanean joan, koinat eta ilobekin gelditu nintzen eta haien saltegiari oski saltzen hasi.

Ez nuen oraino ikusten ene biziko bihurgunea hartzera nindoala.

Pariseko arreba zena galduz geroztik, zenbait hilabeteen buruan, Baionara itzultzeko gogorik ez nuelarik, adiskide batzuen aholkuz, bai eta erabaki larriak ez baitira San Inazioaren arabera ekaitz aroan hartzen, herriko bataile-tarik apur bat urruntzea gogoratu zitzaidan. Ameriketako Montréal hirian, lan bat atzeman arte irakaskuntzan, euskaldun familia batek aterbetu ninduen.

Montréal nuen ere aurkitu frango aise Fides argitaletxea: "Héritage et Projet" edo "Ondarea eta Asmoa" deitu bere sorta ezagun batean sarturik "Le droit des peuples à leur identité" izenarekin, argitaletxe ezagun horrek argitaratu zuen ene lana 1979an.

Montréal-etik beretik nuen azkenean, eta gogoetak egin ondoan, Erromara idatzi kristau herritar soilen lerrora itzultzeko baimena ardietsi nezan. Eta gero, baimen hori eskuraturik, 1976ko abenduan, ez aspaldi elgar ezagutu genuen Aña Durruty aihertar erizainarekin ezkondu ginon.



Geroztik, Naiara deitu dugun gure alaba, 1981eko urtarrilaren 17an Bilbon jaioa, besoetan hartzeko eta osasunean handitzen ikusteko zoriona izan dugu Baionako gure etxean.

Herrian herritarren artean herrigintza lanetan partehartzea genuen alabaina engoitik amets. Ezen Ameriketako Euskal Herriko berriak heltzen zitzaizkigun Montréaleraino eta Franco zaharra ere zendua zela jakitearekin, asmatu genuen bide berriak idek zitezkeela sorterrian. 1977eko uztailan itzuli ginelarik Baionara eta hor bizibide berriari lotu.

Fils aîné de Pierre Charritton et de Jeanne Sabalçagaray

Je suis né le 19 octobre 1921 à Hasparren, dans les Basses-Pyrénées. Mon père, Pierre Charritton était d'abord venu travailler auprès de son oncle, Bernard Charritton, comme jardinier à Eihartzea, à Hasparren, depuis sa maison natale de Jelos-Borda à Orègue, un peu avant la guerre de 1914. Après la guerre, il épousa dans le voisinage Jeanne (dite Gaxuxa) Sabalçagaray de Ehulateia, le 21 juin 1919.

Mes parents me donnèrent le nom de Pierre, nom de mon père, à la mairie et à l'église.

Après moi sont nés à Ehulateia deux filles, Catherine qui après avoir fondé une famille avec le défunt Henri Elhuyar de Briscous vit aujourd'hui à Olhatzea; et Anna qui ayant fondé une famille avec le défunt Jean-Léon Guichandut est décédée à Paris en 1973.

Trois autres fils s'appellent: Sauveur, qui ayant fondé une famille avec Mayie Garat d'Isturitz s'est établi à Mendilahatsua ; Jean-Baptiste, qui ayant fondé une famille avec Madeleine Ihintz de Hasparren est décédé en 1997 et Martin, le plus jeune, qui, avec Anne Hondarrague de la maison Mueska à Briscous a repris notre maison natale.

Ehulateia, comme son nom l'indique, fut jusqu'au milieu du XIX^e siècle une maison de tisserands (ehule = tisserand), mais à ce moment les deux fils aînés, Jean et Martin, quittèrent leur métier comme tous les tisserands du pays et s'en allèrent à Buenos Aires avant d'avoir atteint l'âge de 20 ans, en 1857 et 1863.

Demeura seul à la maison notre grand-père, Jean-Baptiste Sabalçagaray. Celui-ci ayant épousé Dominika Diharce, la fille de la maison voisine de Eztiteia, parvint à élever sur le modeste domaine de Ehulateia une famille de neuf enfants, comme agriculteur et bouvier, sans avoir jamais, nous dit-on, perdu sa bonne humeur.

Notre père suivit le même chemin, sans parole inutile et, comme disait un voisin après son décès, sans geste inutile, parvenant à offrir à son



épouse les ressources nécessaires pour élever honorablement mais sans aucun luxe leurs six enfants.

Nous leurs enfants, nous nous devons de préciser que nos parents et les soeurs de notre mère qui les aidèrent nous ont garanti cette sécurité et cette paix que réclame tout enfant. S'il est vrai qu'autour des années 30 la disparition de plusieurs membres de notre famille meurtrit nos coeurs, il nous faut dire cependant que jamais nous n'avons manqué de tendresse.

Par ailleurs, en dehors des travaux et des jours de récolte de blé ou de maïs ou des fêtes de «pèle-porc», nous n'oublierons jamais les chants, les lectures et les Ave Maria du coin du feu, l'hiver, lorsque le vent froid rugissait au dehors.

Je dois avouer que lorsque mon père m'avait envoyé «garder les vaches» au bout du champ, il m'est arrivé de m'être fait gronder pour avoir, sous mon parapluie, oublié d'empêcher mon bétail d'entrer dans le champ de maïs, à cause du livre que j'avais en main. Mais ce n'était pas trop grave.

A l'école ou au catéchisme, il n'y eut pas de problème. Le dimanche à l'église, je faisais fonction d'enfant de chœur.

C'est au directeur de l'école, le vicaire Ignace Lascanotéguy, originaire d'Urrugne, que j'avouai pour la première fois mon intention de devenir prêtre comme sept autres camarades de mon âge. Je le confiai ensuite à notre mère pour qu'elle transmitt le message à notre père.

Mes parents ne furent pas trop étonnés de ma décision. Il est vrai que mon père, Pierre, pouvait penser, puisque j'étais son fils aîné, que je pouvais un jour l'aider et éventuellement lui succéder dans son travail, si du moins j'avais éprouvé pour le travail de la terre plus d'ardeur que je n'en avais jusqu'alors manifesté.

Lui-même, d'ailleurs, avait bien déjà deux cousins germains qui s'étaient faits prêtres, l'un son plus proche camarade de guerre, l'abbé Paul Durquet qui après avoir obtenu le grade de capitaine dans l'armée française était devenu directeur au Grand Séminaire de Bayonne, et l'autre notre voisin, l'abbé Pierre Charritton qui un jour deviendrait supérieur au collège de Mauléon et ensuite curé de la cathédrale de Bayonne.

Quant à ma mère, Gaxuxa, elle avait une soeur aînée, Marie, religieuse franciscaine et supérieure d'abord à Saint Palais puis à Ispoure.

Une autre soeur, notre tante Marianne, avait été à Bayonne gouvernante auprès de son oncle, Monseigneur Diharce, vicaire-général. C'est celle-ci



qui, après la mort de l'oncle, était venue habiter avec nous et avait amené la riche bibliothèque qui très vite fut la cause de ma jeune passion pour les livres.

La soeur de la maison, tante Charlotte, notre «seconde Maman», était femme de prière mais aussi de travail et surtout la stricte gardienne des saintes traditions. Tante Charlotte dut aussi donner son accord et lorsque plus tard, devenu prêtre, il m'arrivait de m'écarter de quelques traditions ecclésiastiques, elle savait me rappeler que je me devais le soir de respecter certains horaires.

C'est ainsi qu'au moment d'accomplir mes 12 ans, je suis entré pour la première fois mais non la dernière fois à l'internat du collège de Hasparren, qui se trouvait comme à portée de la main de notre maison natale, pour m'initier au latin, au grec, à l'espagnol et à beaucoup d'autres choses afin de devenir prêtre un jour.

Les études

Il me suffisait de franchir le grillage qui clôturait la cour de l'école paroissiale où j'avais déjà fait cinq ou six ans pour passer au collège. Mais en réalité, le passage du régime de l'abbé Lascanotéguy à celui de l'abbé Gastelu me fut fort pénible.

Il faut reconnaître que l'internat où j'entrais en Octobre 1933 était assez particulier: fondé vers les années 1840 par les pères Garat et Deyheralde, le collège de Hasparren avait été confié aux frères des écoles chrétiennes. Deux directeurs s'y étaient succédés, le frère Inocentius Elissamburu (+ 1875) d'abord et le frère Juvenal-Martyr Aguirre (+ 1932) ensuite jusqu'à l'expulsion de France de la congrégation en 1911.

Des jeunes gens de bonne famille venaient de toute l'Espagne pour y apprendre le français. Ils étaient si nombreux que j'ai pu vérifier qu'ils étaient encore plus de 100 élèves internes espagnols en 1900. Mais à cause de la guerre de 1914 ce courant s'était arrêté et, vers 1930, le collège de Hasparren était sur le point de disparaître. C'est alors, en 1933, que l'évêque de Bayonne confia l'établissement au père Jean Gastelu.

Le nouveau directeur prit en charge le collège avec 7 enseignants et 29 élèves, tous internes, parmi lesquels nous nous comptons les 6 jeunes séminaristes de Hasparren. L'abbé Gastelu parvint très vite à peupler son collège puisque dès la seconde année nous étions 90 élèves, et, lorsque 25 ans plus tard il me laissa sa succession, l'institution St Joseph comptait près de 300 élèves.

Je dois toutefois avouer que moi-même, soit que je fusse par nature d'humeur rebelle, soit que l'on m'ait jusqu'alors mal éduqué, j'eus bien du mal à me soumettre au règlement de l'internat et à la rude discipline de ma nouvelle école. Fort heureusement, j'ai bénéficié de la protection d'un prêtre souletin très âgé, notre professeur de latin, le chanoine Ossiniry de Tardets qui fut indulgent pour mon esprit indiscipliné et me confirma dans ma passion de la lecture. Grâce à lui je parvins à supporter ces deux premières années d'internat. J'ai gardé un souvenir plutôt mitigé des autres professeurs.

Quoi qu'il en soit, c'est avec bonheur que j'arrivai au Petit Séminaire d'Ustaritz au moment d'accomplir mes 14 ans, en Octobre 1935. Il me



semble que je dois beaucoup à tous les professeurs que j'y ai rencontrés. Je devrais remercier particulièrement le supérieur, l'abbé Joseph Garat, de la maison Lorda à Hasparren et l'abbé Pierre Lafitte qui fut mon directeur de conscience et mon maître à penser.

En évoquant le souvenir de Pierre Lafitte je dois cependant ajouter qu'à cette époque où la guerre civile faisait rage au-delà de la frontière et dont les échos parvenaient jusqu'à nous, le fait d'avoir lu les articles ou les livres de Jacques Maritain, de François Mauriac, de Georges Bernanos, d'Emmanuel Mounier ou de Iñaki de Azpiazu, connus grâce à l'abbé Lafitte, nous rendait suspects aux yeux de beaucoup.

De bonnes âmes savaient faire parvenir au presbytère de Hasparren, au point d'inquiéter nos parents, tous les renseignements concernant les brebis égarées: j'avais 16 ans et je venais de prendre la soutane lorsqu'on fit savoir à mes parents que certainement je devrai quitter le séminaire à cause de mes idées subversives.

